

# 1. Sarrera - Introducción

## 1.1. Sarrera

Orain dela 25 urte Mendigorriako Andion herrian (Andelos) topatuko esaldi iberiarrak, edo, euskeraren bidez iberiera lantzen ari diren ikerleek ez dute iberiar grafiarekiko zaletasuna piztu, Irulegik egin duen moduan. Orain, ordea, euskaldunek iberiera dezifratzen laguntzeko dugun erantzukizuna mahai gainean jarri da.

Irulegiko eskuaren testua interpretatzeko “ikerle ofizialek” ez dute eztabaida publikoa bultzatu nahi izan. Horrek ez gaitu harritu, 25 urtetan Andiongo esaldiari buruz ere berdin egin dutelako.

Beraz, Andionen esaldiarekin bezala, oraingoan ere herri jakintzari dagokio proposamenak egin eta lantzea, eztabaida sustatzea eta, denon ekarpenen arteko kontrastearekin, bidea egitea, egunen batean zerbait adosten dugun arte.

Dena dela testua argitzeaz bezain garrantzitsua da jakitea zergatik oraingoan zabaldu duten Irulegiko Eskuaren informazioa leku guztietan, Euskal Herriko hedabide guztietan, estatuan zein nazioartean. Izan ere, azken hamarkadetan erabat kontrako jarrera izan dute: ezkutatu, isildu, baztertu..., ez soilik Iruña-Veleiaren aferan, baita euskalduntze berantiarraren gaian, zenbaki iberiarren gaian eta beste batzuetan ere. Oraingoan zergatik erakutsi eta zabaldu dute. Zergatik?

Hori eta gauza gehiago landuko ditugu Euskeraren Jatorriaren 17. Biltzarrean, urriaren 7an Iruñako Larraona ikastetxean egingo dugun horretan. Hurrengo egunean, 8an, Irulegirako bisita gidatua ere egingo ditugu, gai hau hobeto ezagutzeko. Bilkuran, esku famatua lantzeaz gain orain 30 urte inguru Aranguren ibarrean ere aurkitu zen beste eskuaren idazkuna eta Mendigorriako Andiongo iberierazko esaldia ere aztertuko dira.

Aurkikuntza hau dela eta, iaz adierazpen hau egin genuen eta hor ikusten da ze garrantzia duen:

**Irulegiko eskua ikusita, Euskeraren Jatorria, Historiazaleok eta Iruña-Veleia Martxan elkartek ETBri euskalduntze berantiarraren dokumentala betiko kentzeko eskatzen diogu.** Hor honako puntuak azaldu genituen:

- Irulegiko idazkunak ETBk eta Alberto Santanak bultzatutako Euskalduntze Berantiarraren dokumentala gezur hutsa dela berriz ere baieztatu digulako.
- Beste testua, Arangurenen orain 30 urte topatutako beste eskua, ekartzeko eskaera egin diogu Nabarrako Gobernuari.
- Seguraski ez da euskal testurik zaharrena, bai ordea osatuenetako bat.
- Itzelezko garrantzia du arrazoi askorengatik.
- Manuel Larramendik bota zuen teoria berriz ere baieztatu dela esan behar dugu, alegia euskera aspalditik hizkuntza idatzia ere izan zela.
- Iruña-Veleiakoko grafitoen aldeko aurkikuntza da Ikusten delako herritarrek idazten eta irakurtzen jakitea ez zela salbuespen bat izan.
- Iberiera eta bere grafia ikasteko beharra.

Testu osoa: <https://zuzeu.eus/euskara/irulegiko-eskua-ikusita-euskeraren-jatorria-historiazaleok-eta-iruna-veleia-martxan-elkartek-etbri-euskalduntze-berantiarraren-dokumentala-betiko-kentzeko-eskatzen-diogu/>

-

## 1.2. Introducción

Las frases ibéricas encontradas hace 25 años en Andión (Andelos), en Mendigorria, o los investigadores que trabajan el íbero a través del euskera, no han despertado el gusto por la grafía ibérica, como lo ha hecho Irulegi. Ahora, sin embargo, se ha puesto sobre la mesa la responsabilidad que tenemos las personas euskaldunes de ayudar a descifrar el íbero.

Los “investigadores oficiales” que han estado interpretando el texto de la mano de Irulegi no han querido impulsar el debate público. Eso no nos ha sorprendido, porque en 25 años han hecho lo mismo con la frase de Andión.

Así que, al igual que con la frase de Andión, esta vez también corresponde a la Herri Jakintza (Conocimiento del Pueblo) elaborar y trabajar propuestas, fomentar el debate y, con el contraste de las aportaciones de todas las personas, abrírnos camino hasta que algún día podamos consensuar algo.

De todas formas, es tan importante aclarar el texto como saber por qué esta vez se ha difundido la información de la Mano de Irulegi en todos los medios tanto de Euskal Herriao, como a nivel estatal e internacional. Y es que en las últimas décadas han mantenido una postura radicalmente opuesta: tapar, censurar, marginar..., no sólo en el asunto de Iruña-Veleia, sino también en el tema de la euskaldunización tardía, de los números ibéricos y otros temas. ¿Esta vez por qué lo han mostrado y difundido de forma como nunca se había hecho? ¿Por qué?

Eso y más cosas trabajaremos en esta 17ª Encuentro de Euskeraren Jatorriaren que celebraremos este 7 de octubre en el colegio Larraona de Iruña. Y mañana, 8 de octubre, también realizaremos una visita guiada a Irulegi para conocer mejor este tema. Hoy, además de trabajar la famosa mano, se analizarán la inscripción de la otra mano que se encontró hace unos 30 años en el valle de Aranguren y la frase en íbero de Andion en Mendigorria.

Con motivo del descubrimiento de la Mano, el año pasado las tres asociaciones realizamos la siguiente declaración: **Vista la mano de Irulegi, Euskeraren Jatorria, Historiazaleok e Iruña-Veleia Martxan, solicitamos a ETB que retire para siempre el documental de la euskaldunización tardía**, donde explicábamos los siguientes puntos:

- La inscripción de Irulegi nos ha vuelto a confirmar que el documental de la vasconización tardía impulsado por ETB y Alberto Santana es mentira.
- Hemos pedido al Gobierno de Navarra que traiga el otro texto, la otra mano encontrada en Aranguren hace 30 años.
- Seguramente no es el texto vasco más antiguo, pero sí uno de los más completos.
- Tiene, sin lugar a dudas, una enorme importancia.
- Hay que decir que la teoría que lanzó Manuel Larramendi ha vuelto a confirmarse, es decir, que el euskera fue una lengua escrita desde hace mucho tiempo.
- El descubrimiento ayuda en el tema de los grafitos de Iruña-Veleia porque se ve que la gente si tenía cierto nivel para escribir y leer, que no fue una excepción.
- Necesidad de aprender el íbero y su grafía.

(Texto completo: <https://zuzeu.eus/euskara/irulegiko-eskua-ikusita-euskeraren-jatorria-historiazaleok-eta-iruna-veleia-martxan-elkarteok-etbri-euskalduntze-berantiarraren-dokumentala-betiko-kentzeko-eskatzen-diogu/>)